

'Tolosa, irudiak eta hitzak' bilduma osatu du Urretabizkaiak ▶ 6



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Larunbata ▶ 2006-09-09 ▶ IV. urtea ▶ 958. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

IMANOL UBEDA ETA JONI UBEDA ▶ BIDE ERTZEAN TALDEKO PARTAIDEAK

«Disko berrian 36ko gerrari eta gerraosteari erreparatu diogu»

TOLOSA ▶ Gaur eskainiko du kontzertua taldeak, zezen-plazan, 22:00etan, Cotirekin batera

LAN BERRIA ▶ Datorren hilean 'Non dira?' euren seigarren diskoa kaleratuko dute ▶ 2,3



Imanol Ubeda, Karlos Aranzegi eta Joni Ubeda Bide Ertzean taldeko partaideak. HITZA



J. ASTIBIA

Aurrera, Txekiako Nazioarteko Jaialdira

LEITZA ▶ Etzi abiatu eta hilaren 29ra bitarte, emanaldiak eskainiko dituzte, beste 9 herrialdeetako dantza taldeekin batera ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Herririk herri, giro ezin hobea udako azken festetan

Bedaio, Alkiza, Lizartza, Elduain eta Zizurkil, jaietan murgilduta ▶ 4-5



Zizurkilgo kart-ak. N. URBIZU

HAUR HEZKUNTZA ENPRESA BATEK

lan poltsa bat osatzeko hezitzaileak behar ditu

curriculum-ak Tolosa 289 p.k-ra bidali

papertxulo

Kale Berria, 36 - Behe
20130 YLLARONA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 69 37 84
e-mail: papertxulo@hotmail.com

IMANOL UBEDA ETA JONI UBEDA ▶ BIDE ERTZEAN TALDEKO PARTAIDEAK



Imanol Ubeda eta Joni Ubeda «ondo pasatzea» dute helburu gaurkoan; argazkian, iazko aurkezpen batean. I. ETXEBESTE

«36ko gerrari eta batez ere gerraosteari erreparatu diogu»

Gaur gaueko kontzertura «ahalik eta ondoen pasatzeko asmotan» hurbilduko direla azpimarratu dute Bide Ertzean taldeko Ubeda anaiek

I. ASENSIO-J. GOIKOETXEA

8 urte daramatzate errepidean eta hurrengo hilean kaleratuko dutenarekin 6. diskoa izango dute merkatuan. Gaur gauean eskainiko duten kontzertuaz, diska berriaren inguruan egindako lanaz eta azken urteetako ibilbideaz mintzatu da HITZA Bide Ertzean taldeko Imanol eta Joni Ubeda anaiek. **Gauza gehiegi dira egunotan galdetzeko baina gaur gauekotik hasiko gara. Nolakoan espero duzue kontzertua?** Hilabete batzuk dira ez dugula

jaialdirik eskaini eta horregatik gogo biziz gaude. Ahalik eta ondoen pasatzeko asmotan hurbilduko gara zezen-plazara. Guretzat, kontzertu bakoitza ospakizun modukoa baita. Hortik aurrera, ez dugu ezer berezirik espero. Eguraldia ez dadila oztopo izan.

Cotirekin batera ariko zarete zezen-plazako eszenatokian. Zer suposatzen du zuentzat berarekin aritzeak?

Bera eta bere taldea ezagutzeko aukera izango dugu. Hortik aurrera, ezer berezirik ez. Cotirekin bezain gustura joko ge-

nuke Bonberenean Jonerekin, Ibarako Gaztetxean Berri Txarrarekin edota Leidorren Quique Gonzalezekin.

Izango al da disko berriko abestirik entzuteko aukera gaueko saioan?

Aste osoa eman dugu diskoari azken ukituak ematen. Dena den, disko berria urrian plaza-ratuko dugunez, biharko [gaurko] emanaldian hiru kantu berri eskainiko ditugu eta gainontzeko abestiak aurreko diskoetakoak izango dira.

Diskoarekin sartu garela aprobetxatuz, zertaz mintzo

da disko hau, nolako izango da?

36ko gerrari eta batez ere gerraostean erreparatu dugu. Kantu guztiak hari horrekin josi ditugu. Zentzu horretan, disko kontzeptuala izango da. Hasiere batean, gure etxean gertatutakoaz hausnartzen hasi ginen. Jose Ubeda Apaolaza, Altsasuko gure aitona, 36ko gerrari desagertu zen edo desagertarazi zuten; Jose Ubeda Sanchez, birraitona, Urbasan erail zuten. Gerra ondorengo urteak ere oso gogorrak izan ziren. Gure etxeok erbestera

jo behar izan zuten. Dena den, diskoak ez da biografikoa. Ez dugu historialariarena egin. Gure kantuen bidez, gerrari buruzko hainbat kontu kantu bihurtu ditugu. Etxekoak eta etxetik kanpokoak: Usurbilgo Manuel Goenaga gudariak gerraz kontaktu dizkigunak, Madridgo 13 Arrosa Gorrien istorioa, Kataluniako *Les dones del 36*...

Eta musikalki?

Nik uste dut Joserra Senperena piano-joleak protagonismo berezia bereganatu duela lan berrian. Karlos Aranzegik, Fran Iturbek eta Kaki Arkarazo teknikariak, beste behin ere, lan handia egin dute.

Deabruak albo batera utzita, badira 8 urte Bide Ertzean lehen diskoa kaleratu zuela.

Ez dago duda egiterik euskal musikagintzan erreferentzia zaretela. Zer dute ubedatarrak?

Eskertzeok dira zure hitzak, baina urruti samar joan zara. Gu pertsona arruntak gara. Musikaz haratago, gure adineko jendeak dituen zeregin, ilusio eta kezka antzekoak ditugu. Kantuak egitea dugu gustuko, baina ez dut uste horrek bere horretan ezberdin egiten gaituenik.

Zuekin batera, Karlos Aranzegi, Joserra Senperena eta Fran Iturbe aritu dira azken urteetan eta baita azken diskoa grabatzen ere. Maila honetako musikariak zuen alboan aritzeak esan nahiko du zerbait zuen alde, ezta?

Edo kontra! Hainbeste urte euren alboan eta ezer gutxi aurreratu dugu gure instrumentuekin! Baina lehen esan dugu, izatekotan, kantu egile gara gu. Tira, egia esan, bidelagun zoragarriak topatu ditugu. Musikari handiak dira, gainera. Arrazoiz dugu.

Diskoaren grabaketan Quique Gonzalez abeslari eta konposatzaile madrildarra eta Berri Txarrakeko Gorka Urbizuk jarri dute ahotza. Zer eman diote diskoari?

Gorkari esker, kantuak indar handia hartu du. *Ez dut atzera egingo* abestiari zerbait falta

TOLOSALDEKO KOMUNIKABIDE ENPRESA BATEK KUDEATZAILA behar du (Erref.: o6-THK)

Enpresaren kudeaketaz arduratzeko gain (justiaren ekonomiko, finantzak, fakturazioa, harpidetza eta diru iturri berrien sustapena, giza baliabideak, diru laguntzak...), eragileekin izan beharreko harremanen kargu egingo den kudeatzaile baten bila gabilta.

Eskatzen da:

- Kontuan hartuko da Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara ona.
- Izaera dinamiko, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa dutenek curriculuma bidali, irailaren 13a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara:

Helbide elektronikoa: gizabaliabideak@jarduna.net
Posta helbidea: Jarduna, S.L. (Giza Baliabideak Saila)
Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 - Andoain

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Interesatuak deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Tabernaria. Hasteburuetan tabernan

lan egiteko pertsona behar da.

Interesatuak deitu 615 78 90 06 telefono zenbakira.

SALGAI

Furgoneta. Furgoneta salgai. California 2,5 TDI. Extrak. 50.000 km. 2003koa. Interesatuak deitu 685 75 17 43ra.

Pago enborra. Tximenetarako zaituta dagoen pago enbor lehorra salgai. Deitu 646 53 71 15 telefono zenbakira.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Oporraldi luzean egindako gastuei aurre egin beharra, seme-alaben eskolako materiala eta arropak, ikastaroetako matrikulak... Nola egiten diozu aurre irailako aldapari?» Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia.

KONTZERTUA ▶

Gaur Cotirekin zezen-plazan

Argentinarrarekin batera ariko da talde tolosarra gaur gaueko kontzertuan; 22:00etan zezen-plazan



Senperena, I. Ubeda, Iturbe, Aranzegi eta J. Ubeda. I. OTEGI/ARGAZKI PRESS

GAURKO KONTZERTUA

«Cotirekin bezain gustura joko genuke Bonberenean Jonerekin edota Leidorren Quique Gonzalezekin»

DISKOA

«Joserra Senperena piano-joleak protagonismo berezia bereganatu du lan berrian»

zitzaion. Gorka kantari trebea denez, hutsune hori ederki bete du eta abestiari aire berria eman dio. Quiquerena, aldiz, kapritxoa izan da. *Esan bare* (Gaztelupeko hotsak, 2004) diskoaren aurkezpen bieran, elkarrekin jo genuen Bilboko Kafe Antzokian eta Andoaingo Basteron eta lagun handiak egin ginen. Euskaraz jarri dugu kantari eta asko edertu du kantua bere ahots zoragarriarekin.

Nahasketak amaitzen ari zarete eta hausnarketarako garaia da. Gustura al zaudete lorturiko emaitzarekin?

Egia esan, neketsua izan da nahasketa prozesua eta arnas pixka bat hartu beharko genuke balorazioetan hasi aurretik. Dena den, inoiz baino gusturago izan gara estudioan. Lehen aldiz, kantuetako letra denak gureak dira. Musikalki ere, lan handia egin dugu denok. Baina beti bezala, entzulea izango da epaile egokiena.

Zergatik 'Non dira?' diskoaren izena?

Gure etxean bezala, beste etxe askotan ere badira 36ko gerran eraildakoak, desagertutakoak... Hortik izena. Baina berriz diogu, gerra ondorengo garaia ere latza izan zen bereziki anarkistentzat, sozialistentzat, komunistentzat, abertzaleentzat eta frankismoaren aurka borrokatu zuten guztientzat. Are gehiago, hauen guztien senideentzat.

Gaurkoa orduan, disko berria entzuteko lehen aukera izango da. Ondoren, ba al da birarik epe laburrean?

Urriaren hasieran Katalunian izango gara. Bi kontzertu eskainiko ditugu: urriaren 6an Gironan izango gara eta urriaren 7an Tarragonan. Gaztelupeko Hotsak zigiluak urriaren amaieran plazaratuko du disko berria eta zuzeneko aurkezpena azaroan hasiko ditugu. Lehena, azaroaren 15ean, asteazkena, Donostiako Gasteszenan.

J.GOIKOETXEA-I.ASENSIO

Gaur izango da azkenik aukera. Hainbat egunetan Cotiren kontzertuak, bere inguruko eztabaidek, giroak lagunduko ote zuenaren beldurra eta bestelako zalantzak eta txutxumutxuak alde batera geratuko dira. Gaueko hamarretan Bide Ertzeanek emango dio hasiera festari. Euren seigarren diskoaren lehen abestiak entzuteko parada izango da bertan. Ubeda anaiekin batera azken urteetan ohiko diren musikariak ariko dira: Karlos Aranzegi tolosarra baterian eta Joserra Senperena donostiara piano eta Hammond organoarekin. Fran Iturbe gitarra-jolea, berriz, ez da gaurkoan Bide Ertzeanekin arituko. Bergararra Estatu Batuetan dabil bestelako proiektu batean lanean, eta bere ordez Imanol Goikoetxea urdiaindarrara ariko da gitarrekin. Aipatu behar da Goikoetxea ez dela berria Bide Ertzeaneko kideentzat, izan ere aspalditik eza gutzen baitute elkar. Kontzertuaren bezperan Imanol Ubeda, taldeko gitarra-jolea eta abeslaria «kezkatuta» ageri zen gauen egingo zuen giroagatik. Kezkak alde batera utzita, ziur taldea gogo biziz irten-go dela euren kontzertuek izaten duten indar, sentimendu eta hausnarketa bateriko emandialdia eskaintzeko.

Tolosarrek euren emanaldia amaitu ostean, Cotiren txanda izango da. Baina ez dezala inork pentsa argentinarra bakkarrik taularatuko denik. Abesti guztiei berak jarriko die ahotsa eta horretaz gain gitarra ere joko du. Alboan bere anaia Martin Sorokin izango du eta hau ere gitarrarekin ariko da. Bi anaiez gain, beste hiru musikariek ere zapalduko dute



Coti abeslari argentinarra gaur ariko da zezen-plazan. HITZA

gaur gauean zezen-plazako eszenatokia. Izan ere, Diego Oliveros ariko da teklatueta eta Matias Einsen baxuarekin. Azkenik, kontzertuko abesti guztiak erritmo egokian joatearen ardura, Marcelo Novatiren kargu geratuko da, bera ariko baita bateriarekin.

Gaurko kontzertuan 2005eko martxoan Madrilgo Groucho estudioetan zuzeneko grabaturiko *Esta mañana y otros cuentos* izeneko diskoko abestiak entzuteko parada izango du zezen-plazara gerturatzeko denak. Izan ere, Cotik lan horretan bildu ditu bere abestirik ezagunenak. Musikari argentinarrak, hainbat artista eta lagun kolaborazioak izan zituen zuzeneko lan horren grabaketan. Esaterako, Ismael Serranok, Julieta Venegas, Josemi Carmona eta Pau-

lina Rubiok jarri zuten ahotsa hainbat abestitan. Bat edo beste lortu duten arrakasta ez da txikia izan.

Maila horretako hainbeste musikari batera ikusteko aukerak ez dira gehiegitan izaten gure inguruan. Beraz, gaur gaueko kontzertura gerturatzeko denak izar askoren dizdizdizarekin egingo du topo zezen-plazan eta tartean gainera herriarrak izango dira, Ubeda anaia. Horrelako kartelarekin eta eguraldiak laguntzen badu behintzat, kontzertu bikain batekin gozatzeko aukera izango dela esatea ez da gezurretan aritzea.

Beraz, galdu ezinezko hitzordua du gaur musika gogoko duen orok, 22:00etatik aurrera Tolosako zezen-plazan, ordu batzutan izarren behatoki bihurtuko baita. ◀



ZIZURKILGO UDALA

Gora Zizurkilgo jaiak!
Zorionak eta ondo pasa!

Tel.: 943 69 10 12 • Teodoro Herrandonea, 6 • 20159 Zizurkil

www.zizurkil.com

JAIKAK ▶

Udako azken festa oihartzunak

Bedaio, Alkiza, Elduain, Lizartza eta Zizurkil herrietan jaietaz gozaten ari dira; udako azken umore eta giro onak irailan ere lekua badu, bazkari, afari, antzerki, nahiz kirola lagun direla



Elduain. Kultur zinegotzia izan zen Elduango jaiet hasiera ematearen arduraduna. M. SOROA

MADDI SOROA - NEREA URIBIZU

Txapelketak, bazkari patzaroak, lagunen arteko algarak, arte eta kultura plasa ha... Udan zehar ikusi ahal izan ditugun irudiak erreprektatu ziren azoan, Lizartzan, Elduainen, Bedaion, Zizurkilen eta Alkizan.

Bedaion, esaterako, ohiko mezarrekin hasi zuten egitaraua eta ondoren hamaiketakoa egin zuten lagun artean; haatik, egun osoko ekitaldiak aipagarriena afaria izan zen, izan ere, 200 lagun inguru bildu zen herriko frontoian. Oso egun berezia izaten da, orduantxe elkartzen baitira Bedaioakoak mahaiaren buelban.

Dena den, gaur 20.00etan egongo dute antzerkia izango da aurtengo egitarauaren ekintzarik garrantzitsuenetakoa, bihar Erasun kirolariari egongo zaion omenezkoaren batera.

Zizurkilen ere ez ziren atzean geratu atzoan, eta egun osoan zehar haurrentzako egitaraua zegoen prestatuta. Goizean Marrazki Lehikaketao sariak banatu zituzten, eta arratsaldean buruhandiak eta hegazti harrapakinen erakusketak izan ziren.

Berandusego, Mac Jeara's Band jazz izan zen. Eta, gazte eta helduagoentzat pentasutako kontzertu handia gaudian izan zen. Eskarmin eta Betagarri, hain zuzen. Sika musika eginez erraz mugitu zituzten gorpuzak bertaratutak.



Zizurkil. Jose Arregi plazan jarritako puzgarrietatik ateratzeko gogo gutxi erakutsi zuten haurrek. M. SOROA

Alkizako egitarauaren baitan, jaiabatu bazkaria egin ostean, betaranoen arteko XV. Pilota Txapelketaren finala jokatu zuten, hende andana bildu zen pilotalekuan, gazteen ikuskinaz gozatzeko.

Ostafu jaietaren herri afaria egin zuten, eta ondoren bertolaren jaialdia izan zen, bertolari ezagunek parte hartu zutelarik. Kupaletaldearen erromeriak hartu zuen lekuko. Dantza saioak egin zituzten herriartek plazan, edertki alaiatu ostean; janaria behar den lekura jaisteko.

Atsedanaldian gau jolasak burutu zituzten, baina eta lota pasatzeko aukera eman zutelarik.

Ibarralean ere jaietan

Elduainen, suziriak eman zion hasiera jaiet. Kultur zinegotzia izan zen jaiabatuaren arduraduna. Elduango jaiet hasiera emango zuten suziriak zertu ukitzearekin batera, elizara abiatu ziren herriartak, bertan meza entzuteko asmoz.

Lizartzan ere giro alaiaren eman zuten jaiet. Aurtin, berriz ere herriko txistulariak izan ziren giro hori jartzearekin arduratu zirenak. Txistu eta danbolina eskuan harturik, Oreako elkarlanean elkartu ziren musikariak. Ekitaldiakemkin batera, herria abiatu zuten denak, beranduego jaiabatuentzat hamaiketakoa izango zuelarik.

Bada oraindik, beraz, non parranda egin. Aipaturiko herrietan prestatu dituzten festetako egitarauak oraindik ere elantze asko eskaintzen dituzte. Bihar, 10.00etatik aurrera badira ekintzak; bukaera, aldi ordu ezberdinetan, baina ia guzietan musika izango da protagonista.

Bedaio kale antzerkia

N. Urbizu ▶ Baserritik baserrira, antzerkia ikusi ahal izango dute gaur Bedaio kalean zehar izan ere, Bedaio emakume baserritar talde batek kale antzerki berezia antolatu du, leku desberdinetako emakume baserritarrek antzerki batean beraien erreallitate antzertzeko dutelarik. Bertan norberak bere eskuak erabiliko du.

Duela 60 urte baino gehiago Bedaion antzerkia egiteko ohitura zegoen, eta bedaiarren asmoa hori izan da, jaiak

indartzea, eta usadioa berreskuratzea, hain zuzen ere. EBEL Emakume Baserritar Elkarteak Baserritiko Argia Ekimen proiektuaren barneko da eta bere helburua emakume baserritarren lanaren onartzea eta gertatzea da. Zalantzarik ez da: Bedaio emakumeak antzerki lanetan, aspaldiko kontuetan. Eta Bedaion gainera, badute meritoa, zalantzarik gabe.

Beraz, gaur iluntzean izango da Bedaioa josteko antzerkia. ▶



Lizartza. Txistulariak kaleak musikaz alaitzen. M. SOROA



Alkiza. Herriko betaranoen arteko XV. Pilota Txapelketan, 3. eta 4. postuak jokatu zituzten. M. SOROA

GAURKO EGITARAUA ▶

ALKIZA 10:30. Herriko haurrentzako burinburu lasterketa eta toka txapelketa.

18:00. Herri kirol saioa herriko gazteen artean, Ion Zabalen eta Izaskun Mendizabalen oinomez.

Ondoren. Sagardo dastaketa egongo dute.

23:00. Herri kirol saioa auzolarien eta herri jostalarien.

Ondoren. Edoze Anatekin erromera.

BEAIO 18:00. Ume jolasak antzertuko.

20:00. Antzerkia: Baserritiko burinburu. Plaza bikiari, duela 50 urte bezala.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Zabal eta Larriagarekin gaupasa.

05:00. Baraburu zopa.

ELDUAIN 10:00. Gosaria Urdelar Bilbotan.

10:45. Haur eta gazteentzat puzgarri herriko frontoian.

18:00. Gorrigo antzerki taldearen eskutik, Ato haitz hipodromoan haur ikuskinaz, Kultur Etxean.

19:00. Beranduego moztzerariaren erakustaldia.

20:00. Iñaki Galaraga eta Irati Azpuru txistulariak.

21:00. XXXVII. Toka Txapelketa.

00:00. Alaba diskojaja (abuztu zerbitzu izango da Tolosa-Elduain-Tolosa, ohiko tokietan, 23:30etik 04:00etara).

LIZARTZA 10:00. Diana Karobibulo txistulariak.

15:00. Mus Txapelketa Itzalan.

17:00. Ume jolasak eta txokolatada.

18:00. Pilota partida: Xabat-Erik, Ato-Atolekin aurka.

19:00. Iluntzean. Zahagi ardoa. Afaria bakoitzak eraman behar du, ardoa hain egongo da.

00:00. Buruburu, Egitar

aldeintzak! Ondoren, Gaztearen akelarrea DJ Zozongorriekin.

GOZALDEAN. Irizti Txapelketa, ahotsa gorde duentzat.

ZIZURKIL 11:30. Meza Nagusia.

12:30. Sardina eta sagardo dastaketa Urtamendi elkarlanean eskutik.

13:30. Buruburu diskojaja (abuztu zerbitzu izango da Tolosa-Elduain-Tolosa, ohiko tokietan, 23:30etik 04:00etara).

LIZARTZA 10:00. Diana Karobibulo txistulariak.

15:00. Mus Txapelketa Itzalan.

17:00. Ume jolasak eta txokolatada.

18:00. Pilota partida: Xabat-Erik, Ato-Atolekin aurka.

19:00. Iluntzean. Zahagi ardoa. Afaria bakoitzak eraman behar du, ardoa hain egongo da.

00:00. Buruburu, Egitar

01:30. Acido C eta Funk musika.

02:30. DJ Stry.

03:00. Break Dance erakustaldia: Team Rockers, Resistance eta Gipuzkaoko Break dantzariak.

04:00. Acido C eta Funk musika.

05:00. Buruburu, Egitar

06:00. Buruburu, Egitar

07:00. Buruburu, Egitar

08:00. Buruburu, Egitar

09:00. Buruburu, Egitar

AITZOL
UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula zabalik irailaren 20 arte
ORDUTEGIA: 10:00-13:00 17:00-20:00

Euskara zure neurria
Euskalduntzen - Alfabetatzen - EGA - Hizkuntz eskakizunak - HABEren azterketak euskaltegian bertan...
Autokalkuntza: zuek erabakit non eta noiz.
Helbidea: Gorosabel 34-B 3.a
Tel.: 943 651006 - 943 652343 Faxa: 943 651244
posta elektronikoa: aitzolue@tolosakoudala.net

CATALAN AZULEJOAK

MAMU: Erakusketa 943 491 484
ZIZURKIL: Biltegia 943 692 156

• Mendea
• Lentea
• Diomegintza
• Diomegintza eta paboiak
• Lenteak

Emio-bidea, 12
30100 ZIZURKIL
Tel.: 943 69 18 64

hitza

Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZan praktikak egin nahi?

Kazetaritza, Komunikazioa eta Euskal Filologia Ikentziatutako Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua

Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz Kredituak baliozkotuko dira

Curriculuma bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen: Araba etorbidea, 5, aldea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

GARAJE

Garajeak, Araba etorbidea, 16, aldea
943 69 17 13 / 677 48 09 16

ARAMBURU

Salgai (Iruia), Guztiz eraberritua, Salgai (Tolosa), Pisu San Frantzisko, 17, 400 m² Bekean, Salgai (Tolosa), Pisu San Frantzisko 41.an, Salgai (Tolosa), Pisu Laramendi kalean, Salgai (Tolosako Iurren), Ozeanokoloka.

Salgai (Villabona), Lokala gendrarako edo ofizinarako, Alokatzeko, Garajeak, Araba etorbidea, 16, aldea
943 65 17 13 / 677 48 09 16

Mahala

BALAZKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baxena - 0941 LEASURU
Tel. Fax: 943 692 492
Tel. Mob: 689 800 682

ARRASTOA

Jai Zoriontsuak izan!

Emio bidea, 25, Pabisa 35, Pabisa
Posta kutxa 81
ZIZURKIL
Tel.: 943 69 42 41 Fax: 943 69 41 02

Ondo pasa Jaietan!

Egarrri

ERNOBIDEA, 7 ZIZURKIL Tel.: 943 69 62 57

KULTURA ▶

Tolosako hiria postaletan irudikatuta

Joseba Urretabizkaiak 12 erretratutan
isladatu du herriaren historia

ESTI EZEIZA

Urtean zehar hainbat ekitaldi gauzatu dituzte Tolosan, eta orain, azken txanpara allegatu dira 750. urteurreneko ospakizunak. Hala, atzo, *Tolosa, irudiak eta hitzak* postalen bilduma aurkeztu zuten Kultur Etxean. Bertan egon ziren, Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea, Jose Urretabizkai, argazkilaria eta Kutxako ordezkariak.

Bilduma honek, batetik, Joseba Urretabizkaiak Tolosari buruz margotutako hamabi

postal ditu, eta bestetik, sei egile Tolosako garai desberdinei egindako azterketez osatutako koadernotxoak biltzen du. Sorta hau eskuratu nahi duenak, Kutxako bulegoetara jo beharko du, doan banatuko dituztelarik. Guztira, 4.000 postal sorta banatuko dituzte Tolosan.

Bildarratzek azaldu zuenez, proiektu honek Tolosaren orotzapean isladatzen ditu argazkitan, «postal hauek, Tolosako argazkiak dira, baina modu ezberdinean kontatuta». 750. urteurrena aitzakiatzat



Atzo, Kultur Etxean egindako aurkezpenaren irudiak. E. EZEIZA



Joseba Urretabizkaiak egindako 12 postalak. E. EZEIZA

hartuta, «aspaldian Tolosak etzitzen postal batzuk» prestatu ditu Urretabizkaiak. Proiektu hau gauzatzeko ideia Urretabizkaiak argazkilarik 750 Fundazioarekin izandako elkarriketa batzuen ondorioz sortu zen. Hala, udaletxean zegoen dokumentu batetik, Tolosaren historia kontatzen duten testu batzuk atera zituzten. Hau egin eta gero, hurrengo pausoa, idatzi hauek argazkitan isladatzea izan zen. Horrenbestez, Joseba Urretabizkaiaren Mitxoleta enpresak, argazki hauek modu ezberdinean erretratatu nahi izan ditu, «lehen ere, liburuetan eta aurkitu baitaitezke Tolosako argazki zaharrak». Bilduma honetan, hiriko toki ezagunenak, nahiz ezezagunenak bildu ditu argazkilarik. Hamabi irudietatik sei, oraingoak dira, baina gai-nontzekoak historian zeharrekoak. Gauzak horrela, alde batetik, postalak margotzeaz eta diseinuaz Mitxoleta enpresa arduratu da. Eta, bestetik, Ekograf-ek burutu du bildumaren inpresio eta manipulazioa.

KULTURA ▶

Datorren ikasturterako izen-emateko epea ireki du Aitzol Udal Euskaltegiak

Autoikaskuntzarekin, «pertsonalizazio maila gorena» eskaintzen dute

E. EZEIZA

25 urte beteko ditu laister Aitzol Udal Euskaltegiak, eta orain, urtero legez, datorren ikasturtean izena emateko epea ireki du. Hau azaltzeko, atzo, aurkezpena egin zuten Iñaki Azaldegi Euskara teknikariak, Onintza Lasa Euskara eta Hezkuntza zinegotziak eta Martxeli Sagastume Euskaltegi zuzendariak.

Tolosako euskaltegiak, «ikasleen baldintzak kontuan hartuz», maila eta ordutegi ez-

berdinetao ikastaroak antolatzen ditu, bakoitzaren egoerara egokituz. Beti ere, ahalik eta talde homogeneoenak egiten saiatzen dira. Ordutegiari dagokionez, goizez nahiz arratsaldean emango dituzte eskolak. Hau dena kontuan hartuz, «lehenbailehen izen-ematea» gomendatzen dute euskaltegi-ko arduradunek. Hilaren 18an eta 19an ikasleen euskara maila neurtzeko azterketak burutuko baitituzte, eta 21ean, taldeak osatu, eta martxan jarriko dituzte.

Prezioak desberdinak dira, ikasle bakoitzaren egoera ekonomikoaren arabera, eta baita, familia motaren arabera ere (familia ugariko kasuetan). Bestalde, urtearen amaieran, klaseetara etortzea eta jarrera ona kontuan hartuta, matrikulan ordaindutakoaren erdia bueltatuko zaio ikasleari. Eta honez gain, euskaltegiak jarritako mailak gaindituz gero, ordaindutakoaren beste zatia ere itzuliko zaio.

Aitzolen, aspalditik martxan dauden tituluez gain, (EGA,



Azaldegi, Lasa eta Sagastume, atzo, aurkezpenean. E. EZEIZA

Hizkuntza eskola ofizialena eta Irakaskuntzako Hizkuntza Eskakizunak...) orain dela hiru urtetatik hona HARE ere ari da bere ziurtagiriak ematen. Bestalde, Aitzoleko programak, kanpo-ekintza osagarriak ere sartzen ditu barnean, «euskara ikastea ezin baita mugatu

eskoletara etortzearekin bakarrik». Duela hiru urtetatik hona, autoikaskuntza zerbitzua ere eskaintzen dute. Hala, ikasle bakoitzak bere tutorearekin adostuko ditu helburuak, ibilbidea... Eta interneten bidez, etetik edo lanetik ikastea aukera izango du.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶

Bihar helduen txanda Pilota Txapelketan

Leitzako pilota txapelketan, gaur izanen da gaztetxoeren txanda, 09:30etik aurrera, sei partida jokatzuz; bihar, berriaz, azken kanporaketak izango dira. Hiru partida jokatuko dituzte Amazabalen: kadete-etan. Oihan Alduntzin leitzarrrak eta Olalde, Kortabarría-Zabaleta izanen dituzte arerio; jubeniletan, Aimar Lansalot (Aurrera pilota eskolako partaide) eta Iragi Andreu-Nublarekin ariko dira; eta azkenik, senior mailan, Erroizena-Keralt eta Larrañaga-Baez bikoteen norgehiagoka izanen da.

LEITZA ▶

Arkixkileko futbol partida, bihar, 18:00etan

Aurrera futbol taldeak bihar arratsaldean jokatu duen denboraldiko aurreneko partida, 18:00etan hasiko da Arkixkilen. Leitzarrek Iruñeako San Inazioaren aurka jokatu dute, eta partida lehiatsua izatea espero dute, iaz maila handia erakutsi baitzuen San Inazioak. Bestalde, bazkide egiteko aukera ere izanen da aurrerantzean, Arkixkileko takilan bertan: Aurrera kirol elkarteak bazkideentzat, 30 euro; gainerakoentzat, 12-17 urte bitartekoentzat 20 euro eta 18 urtetik gorakoentzat 40 euro.

GIZARTEA ▶

BTT martxan lan egiteko laguntzaileak

Plazaola turismoko partzue-ergoak, hurrengo igandera, hilak 17rako, antolatuta duen mendiko bizikleta martxan lan egiteko laguntzaileak eskatu ditu. Egun berean Plazaolako bide berdean zeharreko maratoni-erdia ere izango da, eta jendearen beharra du, antolaketarako.

LEITZA ▶ KULTURA

JAIONE ASTIBIA

Leitzako Aurrera dantza taldea Txekiarantz abiatuko da astelehen goizean; errepublika hartako hego-ekialdean dagoen Valasske Mezirici hirira, bertan egiten duten Nazioarteko Folk Jaialdian parte hartze-
ra.

Bi urtetik behin egiten dute *Mezinarodni Folklori Festival Babi Leto* izena duen jaialdia; duela 14 urte hasi ziren, eta aurten 7. edizioa izanen du, hilaren 14tik 17ra bitartean. Nazioartean ospea duen jaialdia da. Kultur jardunaldietan tradizio handiko eskualdea da aitatutakoa; dantzak ez ezik, herri kantak eta maila handiko musikariak eta abesbatzak dituelarik — iazko Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartu zuen hiri horretako koru batek, esaterako —. Kontuak kontu, hara non, aurtengo Nazioarteko Jaialdi horretan parte hartuko du Aurrera dantza taldeak.

«Ilusioz beteta» eta aldi berean «arduratsu» ere badaude leitzar dantzariak. «Hamar herrialdetako dantzariak bilduko gara bertan; Euskal Herriko inor ez da izan sekula jaialdi horretan, hain urrutitik joandakorik ere ez, eta ezin dugu hutsik egin: Euskal Herriko ordezkariak izanen gara», adierazi zioten Aurrera dantza taldeko ordezkariak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI, herenegun iluntzean, eguneroko prestateta saioaren ondoren.

Prestaketetan, fin

Izan ere, gogor eta serio ari dira lanean dantzariak; 26 neska-mutil eta 2 txistulari eta atabaleroa, iazko urriaz geroztik ari dira ia eguneroko lanean: «Herriko pestetako saioa prestatzen orduan hasi ginen; dantza berriak ikasteko eta maiztasun atera zen bidaia honen kontua; geroztik egunero bildu gara entsaiatzeko», azaldu dute. Txekian, egunero izango dituzte dantza saioak Folk Jaialdian: kalejirak, erakustaldiak... Baina emanaldiak, 10 herrialdeetako dantza taldeenak, hilaren 16an eta 17an izanen dituzte (bigarren hau, Kelc izeneko inguruko beste hiri batean): «Egiten ditugun dantza gehienak pestetakoak berak



Txekiara joanen dira etzi Aurrera dantza taldeko kideak. Irudian txistulari bat eta atabaleroa falta dira. J. A.

Aurrera dantza taldea Txekiara doa, hango Nazioarteko Jaialdira

Beste 9 herrialdeetako taldeekin batera, Euskal Herriaren ordezkariak izanen dira; hilaren 20ra arte egongo dira



Maiatzaz geroztik egunero ari dira entseguetan. Irudian, asteazken arratsaldeko saioko une bat. J. ASTIBIA

izanen dira, baina harako, egitaraua egokitu dugu: dantza desberdinen zatiak aukeratu eta jarraian, dantzari batzuk bukatzean, besteak sartuz. 15 minutuko bi saio eta 20eko bat prestatu ditugu». Koordinazioak, pausoak ongi dantzatzeak eta «batez ere itxuroso, txukun

dantzatzeak, ongiti oso ongitaraua koska eragiten du eta hori landu dugu».

Dantzari baten lankide baten bidez izan zuten jaialdiaren berri: «Portugaleteko jaialdian izan eta hemengo dantzak asko gustatu ondoren, hara joateko talderen bat ezagutzen

ote genuen galdetu zigun, eta guk baietz, gurea, erantzun genion». 16-17 urte dituzte gazteenek; 28-29 helduenek, «txistulariak kontatu gabe»; 33 lagun joanen dira. Autobusez bi egun pasako dituzte joanekoan; itzulerakoan beste hainbeste.

iragarki laburrak ▶**LAN HEZKUNTZA**

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: Osasun-Laguntzaile Teknikoa, erizain laguntzaileak, laborategiko langileak, izpietan teknikoak. 943 313782.

Bergara, Hernani, Erreterria.

Ondorengo lanpostuak betetzeko langileak behar dira: peoiak, garbitzaileak, lorezainak. Informa zaitetz: 943 313782.
Langileak hainbat zerbitzuetan. Postu finkoak betetzeko behar dira.

Zazpi orduko lanaldiarekin.

943 313782.

Hezitzaileak-Zaintzaileak.

Haur eskoletarako behar dira.

Informa zaitetz: 943 313782.

Gidaria. 35 ordu astean lan egiteko.

Eusko Jaurlaritzan. 943 313782.

Harreragileak-Administrari

laguntzaileak. Erakunde publikoetan lan egiteko behar dira. 7 orduko lanaldia. 943 313782.

Suhiltzaile postu libreak. Deialdi

irekia. 943 313782.

Foru Aldundiak sukaldari

laguntzaileak eta garbitzaileak behar ditu. 943 313782.

Anoeta, Beasain, Bergara,

Soraluze, Mutriku, Zizurkil eta

Mendaroko udalbatuetan

administrari laguntzaileak behar dira.

943 313782.



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko irailaren 9a, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

25

hotzena

21

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Bedaio. 20:00etan, *Baserritik baserrira* kale antzerkia, Bedaioko jaien baitan.

Orendain. Bihar, 09:00etan, herriko plazatik abiatuta, mendi irteera. Ondoren, bazkaria egingo dute.

Tolosa. Santamariako kaperak 11:00etako mezan abestuko du, bihar, Izaskungo Ama Birjiniaren Eguna ospatzeko.

Tolosa. La Jara elkarteak irteera bat antolatuta du Pilarikako zubirako Extremadurako hainbat leku bisitatuz. Alojamentua 3 izarretako hoteletan. Prezioa: 195 euro. Informazioa: 675 707619.

Tolosa. Coti eta Bide ertzean taldeen kontzertua, 22:00etan zezen-plazan, Tolosako 750. urteurrenaren ospakizunen baitan.

Tolosa. Eduardo Mocoora Udai Musika Eskolak etzi hasiko du 2006/07 ikasturtea.

Tolosa. Datorren urteko egutegia egiteko Argazki Lehiaketa. *Nola ikusten duzu Tolosa?* gaiarekin. Lanak entrega daitezke paperean edo digitalean Tolargin (Gorosabel, 34) edo Tolosagasan (Arostegieta, 18), hilaren 15era bitarte.

Villabona. Enrique Abril Errebote Txapelketaren baitan, Behar-Zana elkarteak pilotariak, Uztaritzeko Kapito Harrikoen aurka jokatu dute, bihar, 09:00etan, Errebote Plazan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2.
943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irratiak
(107.5, 101.2 FM)

10:30-13:00. *Hitzak hegan* magazina.
Kolaboratzaileak, *Munduari leihoa*, agenda...

Goiko irratiak
(107.0 FM)

13:00. *Kornerra* magazina.
Posta elektronikoa:
kornerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Paisaia eder horiek...

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Han eta hemen topa daitezke paisaia zoragarriak; oraingoan Euskal Herritik eta Pirinioetatik heldu zaizkigu



'ARGIÑANOREN TERRAZATIK' ▶

Xabier Esnaola (Tolosa).

Argazki ederrak ateratzeko ez dago zertan urrutira joan. Halaxe egin du Xabier Esnaola tolosarrak. Zarautzik ateratako argazkia bidali baitigu berak, iluntzeko zeru eder batekin, Getaria ikusten dela. «Abuztuko hirugarren astean iluntzean ateratako argazkia da, Argiñanoren terrazatik», azaldu dio Xabierrek Hitzari.

GRUTA HELADA ▶

Egoitz Bengoetxea.

Mendia aukeratu du Egoitz Bengoetxeak bere oporraldirako. «Argazkia Casteret-eko Gruta Helada famatuan aterata dago, pasa den uztailaren bukaera aldera. Koba honek barrukaldea zabalago du sarrera baino, eta kanpokaldera honelako argazkiak atera daitezke, ilunpetik argitara. Atzean, Gabietou tontorra ikus daiteke».



AGURRAK ▶



ZORIONAK

Ainhoa eta Mikel. Zorionak zuen ezkontza egunean.

Ondo pasa lagunen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...